

# Pat Metheny

## Gasteizen da gaur

Oraingo honetan Kenny Garrett saxo jolearen laukoteko kide gisa

**P**at Metheny gitarra jolea Gasteizko Jazzaldia itzuliko da gaur duela hiru urteko jaialdian lortu zuen arrakastari eutsi nahian; Kenny Garrett saxo jolearen laukotean ariko da. Gauari hasiera emateko Jim Hall eta Joe Lovano buru dituen Grand Slam taldeak joko du.

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

METHENY 1993ko Jazzaldian aritu zen, Joshua Redman, Christian McBride eta Billy Higgins musikariekin lagunduta, eta jardunaldi hura —John Scofield-en laukoteak osaturik— azkenaldiko onenetakoa izan zen publikoaren iritziz. Methenyk hainbat aldiz jo du Gasteizen eta gaur gauean Mendizorrotzako eszenatokira itzuliko da, nahiz eta oraingo honetan bandako burua Kenny Garrett saxo jolea izan (ezin bestela izan aurtengo ekitaldian). Brian Blade kutxan eta Nat Reeves kontrabaxuan erritmoaz arduratuko dira.

Pat Metheny (Missouri, 1954) jazz zuriaren adierazlerik nagusietakoa da gitarra joleen artean. Makina bat eragin jaso ditu —country, rock edo be-bop estiloak nahiz Wes Montgomery, Gary Burton edo gaur bertan Gasteizen ariko den Jim Hall musikariak—, baina nahasketa ona egiten jakin du bi aldeko gitarra jole bihurtzeko: jazz musikari erradikala edo publikoa erraz bereganatzen duen artista.


Kenny Garrett (Detroit, 1960), Methenyren belaunaldikoa, bizitasun eta energia handiko musikaria da. 18 urte zituela Duke

Ellington Orchestra-n aritzeko abagunea aprobetxatu zuen eta baita Miles Davis maisuarekin jotzeko ere, Gasteizen bertan ikusi ahal izan zen moduan. Garrettek Davisekin «benetan» jotzeko modua izan zuen, Miles-ek gauero soloak egiteko hamar minutu uzten zizkion eta.

**Hall eta Lovano-ren banda** • Gaur programa nagusiaren erdialdeko jardunaldia izango da eta Grand Slam taldeari egokitu zaio gauari hasiera ematea. Lovano eta Hall musikariekin batera, Scott Colley kontrabaxu joleak eta Yoron Israel kutxa joleak osatuko dute laukotea.

Joe Lovano (Ohio, 1952) Gasteizera dator iaz urte bikaina eman ondotik, diskorik onena, musikaririk onena eta saxo jolerik onenetakoa sailkatu baitzuten. Arrakasta lortu du, bada, 70eko hamarkadan George Benson-ekin eta 80ko hamarkadan Carla Bley Band-ekin lan egin zuenaren ildotik.

Jim Hall (New York, 1930) gitarra jole maisuetako bat da gaur egun —Sonny Rollins-ek esan zuen «jazz gitarra jolerik onena» zela—, Chico Hamilton Quinteten soul musika dastatzen zuenetik 40 urte igaro ondoren. X



Herbie Hancockek haurrekin lortu ez zuen komunikazioa erdietsi zuen helduekin herenegun. Gaur Joe Lovano eta Jim Hall-en taldearen txanda izango da.

JOSEBA OLALDE

### esanak

♦ **Jim Hall** ♦ 'Jazz Times' aldizkarian

«Argitasunaren bila nabil beti. Buruan eskema bat lortu nahian nabil soloen bidez interpretatzen dudana neurrian. Horrek posible egiten dit publikoa ez aspertzea». X

♦ **Joe Lovano** ♦ 'Jazz Hot' aldizkarian

«Jazz musika hainbat estiloren uztartekaren ondorioa da. Erritmoan eragin afrikarra eta ekialdekoa badago; armonikoki gamak baliatzen ditu, oinarriak Afrikan, Asian eta indiar amerikarregan direla. Jazza iturri-tatik jaio zen, eta swing-a eta blues-a, berriz, Estatu Batuetan, askatasun eta inprobisazioaren ildotik». X

«Beldurrik ez da izan behar jazz musikaren iraupena dela eta. Poparekin asko nahastu arren, errepikazio kutsua hartzen ohi du, eta, nahiz eta luxu handikoa eman dezakeen, sorkuntza gaitasuna galtzen du. Jazzetik irteteen askatasun kolektiboaren ideia galtzen da». X

♦ **Brian Blade** ♦ 'Jazz Hot' aldizkarian

«Jendea kezkatu dabil eta ez digu gazteoi bakean eboluzionatzen uzten. Talde gutxi aritzen dira elkarrekin luzarotan. Rap musikak, egun herrikoia dena telebistak sustatu egin duelako, adierazpide garaikidea dirudi». X

♦ **Kenny Garrett** ♦ 'Down Beat' aldizkarian

«Herri musika joko ez lukeen gazte asko dago, jazz musikarekiko begirunea dela eta. Baina azken batean denok diogu begirunea, eta, beraz, ez dago hori soilik zertan jo, horrela ez baita aurrera egiten». X

♦ **Pat Metheny** ♦ 'Down beat' aldizkarian

«Jazzak duen eragin hegoamerikarra, kolore bat izanez gero, turkesa izango lizateke. Musikaren alde bisualari buruz, geroz eta atseginago dut soinu-pintura. Hori da nire azken lauzpabost diskoen lotura». X

## Doinu trinkoak

**FITXA** Taldeak: Wayne Shorter Quintet eta Herbie Hancock Quartet **Musikariak:** Wayne Shorter saxoa, David Gilmore gitarra, Jim Beard piano eta teklatuak, Alphonso Johnson baxua eta Michael Baker bateria. Herbie Hancock piano jolea, Craig Handy saxo tenorea, Dave Holland baxu elektriko eta kontrabaxua eta Gene Jackson bateria. **Eguna:** Uztailaren 16a **Lekua:** Mendizorrotza kiroledegian

Jim Beard piano joleak abesti bakoitzaren trinkotasun osoa lortzeko behar zen ekarpena eskaintzen zuten bitartean.

Aipagarria izan zen Michael Baker bateria jolearen lana. Abesti bakoitzari behar zuen bizitasuna eta alaitasuna erantsi zion.

Shorterren bostekoak *High life* izeneko bere azken diskoako zenbait pieza jo zituen. Azken lan honen produktorea Marcus Miller izan da, iazko Gasteizko Jazzaldia erritmoz bete zuena.

Weather Report osatu zuen Shorterrek bere esperientziaren fruiturik onena erakutsi zuen, entzuleen gozamererako.

Gasteizko entzuleak ondo ezagutzen zuen, bestalde, Herbie

Hancock, Shorterren bostekoaren ondoren jo zuen piano izarra. Hancockek lau alditan jo du, aurtengoa kontuan izanik, Gasteizko Jazzaldian.

Hancockek aurreko egunean haurren saioan lortu ez zuen komunikazioa lortu zuen. Eszenatokira atera bezain pronto, berrak eragin zituen entzuleen artean zeraman kamiseta Jazzaldiko ofiziala zela eta bestelako bromak eginez. Gogoz ekin zion bere azken lana den *The new standard* izeneko abestiak aurkezteari. Eserlekuan tokirik ere ez zuen aurkitzen zenbait abestitako une berezietan.

Lanean jarri zituen bere musikariak. Dave Hollandek, jazz munduko baxu jole aipagarrie-

netakoak, lan ikaragarria egin zuen. Chick Corea eta Miles Davisekin lan egin izan du Hollandek, eta kontrabaxu lekzioa eskaini zuen egin zuen solo batean.

Influentzia nagusi gisa Joe Henderson duen Craig Handy saxo jolearen lana aipagarria izan zen, Hancocken abestien melodia eraikiz. Gene Jackson bateria joleak bi solo eskaini zituen, Hancockek kalitatezko laguntzaileak zeramatzala erakutsiz.

Hancockek, aurreko egunean egin zuen legez, Stevie Wonderren abesti baten jazz bertsioa jo zuen, popeko hainbat abesti jazz erara moldatzea gustuko duela erakutsiz.

Pianoko izarrak kalitatea eskaini zuen. Hala eta guztiz ere, eta kontzertua nahiko berandu bukatu zelako bereziki, entzule askok alde egin zuen Mendizorrotzatik kontzertua bukatu aurretik.

Karmele Jaio

ESPERIENTZIAK fruituak ematen ditu alor guztietan. Musika munduan ere hala gertatzen da. Gaztetan musikariak bere musika tresna soilik entzuten duela esaten da, taldekoen doinuak ahaztuta. Urteekin musikariaren belarriak zabalduz doaz eta bere tresnarentzako lekua bilatzen du besteen artean. Taldearen trinkotasuna bilatzen da, sortzen den musikak mezua isla dezan ahaleginduz. Wayne Shorterrek doinu trinkotasun lekzioa eman zuen Mendizorrotzan. Musikariaren doinuen batasunak bere fruituak eman zituen.

Shorterrek taldea gidatu zuen, pieza bakoitzeko une lasaienetik zaratatsuenera arte. Denak batera, bide beretik, helburu bere-rantz. Michael Bakerren bateriaren bizitasuna eta Shorterren saxoaren goxotasuna bata bestearen osagarri bihurtu ziren. Alphonso Johnsonen baxua doinuen oinarria zehazten zihuan, David Gilmore gitarra joleak eta